

# 8 Toros 8

TXILLARDEGI



## AZKARTUZ

doaz zurrumurrak. Zitrak ere zabaltzen hasiak dira: 1500 kilo, omen. Ordóñez-Odon bikote finak bere ametsa lortu omen du. Donostiak bere zezen-plaza berria izango du. San Sebastianek bere toreroak eta majak izango ditu, chulaponeria, pasodobleak, eta guzti. Y olé!

Alimale-torturaketa publiko hori lotsagarria dela? «Pero qué pasa, tío!! José de Artéchez zenaren jarraitzaileak ez dira gurean falta: «zezenketa euskal festa da osoki». Indurain ere, torero jantzirik, kapa hori baten arrimona ikusi berria dugu. Arzálluz bera ere ondotik dator-kioke, azpeitar jator bati dagokionez. Badakizue: gure oitara garbisyak, zezenak barne...

Eta egia bide da. Lapurretan aurreko Euskal Herri zahar guztian barrena erbitzen dira zezenak entzerroetan eta antzekoetan. Aire sur l'Adour, Tartas, Akize, Eauze, zezen-herriak dirai jaraietan. Faltesko zezen-jaitsera ere hor dago.

Zezenen tortura publikoa, berriz, gerotzikakoa bide da.

«Corrida»ren inguruko «parafernalia» osoa, segurki, arkeria eta harrokeria ardatz, ez da gurea. Hori ere «color añadido» da. Preseki, espainiar fatxek erantsitako inperio zapaltzaileen kutsua.

Hots, «fiesta nacional» delakoaren kutsu hauxe da Odón eta Ordóñezek zentzua galdu ere arte maite dutena. «8 Toros 8» horren izari gako horixe da: «los toros son la fiesta española por antomasia». Basakeria lotsagarria direla? Erantzuna: «los toros son nuestra fiesta nacional».

Euskal Herriaren normalizazio-bidean, corridak ere behar ditugu. Areago aberztaletasuna azkar agertzen den lekuetan. Hemen, esateko baterako. Donostian ere, Sevillan eta Murcian bezalaxe: cocido madrileño, procesión del rocío, sevillanas, cante hondo, piperpoto. eta abar luze bat. Noski: *Donostia España* da.

# Gaupasak

INÍGO ARANBARRI



## ANTROPOLOGIA

maite duen industrialak, nahi dena, baina badu meriturik aintzakotzat hartua izateko. Arrazoi handiagoz berta-


koa bada, Euskalduna. Busturiarra. Gure buruaren analisia egin duen industria gizona da Lopez de Arriortu. General Motors-eko salmenta zuzendariordea. Eta garbi hitz egin du: gaupasak. Eta berba bakarrarekin haus-tsi du inbertsio ezaz Jaurilaritzatik eman izan zaizkigun arrazoiak. Lotsaren mugan utzi ditu Azua, lehendakari bera. Ez indarkerian ez indarkeriondoa. Gaupasak. Eta hitzoi orpotik heltekotan izango da herriz herriko jaietatik goizalbak harrapatu baino lehen erretiratuko beharrekorik. Ekonomiarekin onurarako baikere.

Mihian herdoil handirik ez duenetakoa da busturiarra: gure gurasok lan egiten zuten, guk gaupasak. Eta hain aktibitate kualifikatuak ekarri dio hondamena berez, genetikoki ere, alemanen gaitetik gauden euskaldunoi. Euskalduna, Europako japoniarra, lanerakoa du DNA bera. Odolean darماغula bada lanerako tasuna. Eta odolean ere, belaualdi kontua, ke-ria.

Behargin lehen, gautxori orain. Ez dakit Arriortuk ezagutzen duen. Baina bada honezaz abuztuko menia interklasista profituzat norbaitek utzi beharko liokeen liburua. Benetan poztuko duen perla txiki bat: *Zoko guziak ostatu oker tsar batzuez beteak; edo zoin eginez, edo zoin tenorez, auzoetako gizon guziak ostatu hetarat bilduak: gau eta egun osoak han alfer, arnoaren izena ematen dioten pozonkeria batzuetarik edan eta edan: hanxet daudezila gizon gazte langileak, aita famliako zaharrak, oro baltsan batzu bertzen galgarri. Bertzelakoan ziren lehengoko ostatuak, bat ostalerak, bai eta ostatuetan zabilzkan gizonak.*

Arrazoi du Arriortuk. Lehen bai. Arrazoi du hitz hauen jabeak, Jean Hiriar-Urrutiak. Lehen bai. Ez balitz hitzok ehun ure betetzen dituztelako datorren hilean.

# HEMEROTEKA



FERRERES / LA VANGUARDIA

## EL CORREO ESPAÑOL

### 'Distentsioaz'

Distentsiotzat hartzen bada aldebietako jokabide bat, ETA erakunde terroristak atentaturik egin ez eta Estatuak polizi bidetik talde armatuaren aurka egin ez, alegia, begien bistakoa da atzo Bordelen Faustino Estanislao Villanueva 'Txapu' atxilotzeak erakusten duela halako distentsiorik ez dagoela. Eta ezin zen bestela izan. Estatuak ezin du gelditu bere ihardun polizia, uste eta aieruak egiten direlako ETAK, espreski adierazi gabe, nolabaiteko tregua batera joko ete duen Barcelonako Joko Olimpikoak amaitu arte.

Gobernua argi mintzatu zen, ETAK iragan uztailearen 10ean egindako tregua kondizionatuaren eskaintzari erantzunez, esan bait zuen erakunde terroristak hiltzeari utzi behar ziola. Gerotzik ETAK ihardun ez izanak —ez jakin hala nahita edo ezintasunez— eta EAJ eta HBren arteko elkarriketek sorturiko giroak, zenbait partidu eta sektoreri irudipenak sortu dizkiete, egoera honetan hurbil zekuskitelarik konponke-

ta elkarriketatuaren aukurak.

Ardanza lehendakariak ongi esan zuen bezala —eta orain bere hitzak gogoraztea bereziki egokia da—, ETAREN komunikatutik ez zen ondorioztatzen bere jarreraren aldaketa nabaririk, eta bere hartan zirauen Gobernuarekin zuzenean mintzatzeko asmoak, nekez onargarria legalitatearen eta demokraziaren ikuspegitik.

EDITORIALA

## EL MUNDO

### ETA, treguan; polizia, ez

Villanuevaren atxiloteta erlazioan egin behar da ETAK azken asteotan egin duen egintzazko treguarekin. Poliziaren ekintza honek, oraindik operatibo diren komandoek atentatuen bideari berrekitea eta tregua bazterzea eragingo ote du? Zenaibaitek ukatu egiten dute, esanez ETAK orain hiltzen ez badu ezin duelako dela. Akats latza: gauza bat da atentatu ikusgarri sail sistematiko bat aurrera eramateko moduan ez egotea, eta besterik da bakar bat ere ezin egin izatea. Jo-

seba Azkarraga EAkoak esan du atxiloteta bat probakazio bat dela. Bere ikuspegia ez da zentzugabea.

Baina kontrako aldetik ere egin daiteke gogoeta, eta espero izan egungo ETAKo arduradunek ulertzea Txapu atxilotzeak ez dituela ezertan aldatzen problemaren oinarritzko datuak. Lehendik ezaguna zen datu bat berresten duela, alegia: gauzak enfrontamendu armatuaren kalkuluan jarri gero —Eugenio Etxebestek berak aitortu du—, Espainia eta Frantziako estatuak irabazteko aukera guztiak dituztela. Zentzu honetan, Bordeleko atxilotetak —paradoxa dirudien arren— ez bakarrik ez lioke boikot egingo biolentziaren zikloarekin amaitzeko elkarriketaren itxaropenari, baizik eta indartu egingo luke.

Euskal errealtatean, interesgunea gero eta gehiago esparru politiko hutsera mugituz doa. Garaikoetxeak atzo eginiko adierazpenek azaldu zuten bezala. Euskadin maitzen ari dateke indar politikoen koerlazio berri bat, autodeterminazioaren aldeko fronte nazionalista baten sorrerarekin. Borroka armatua,

ikusmira horretan, traba besterik ez da. Bada garaia traba hori bidetik kentzeko guztiontzako kostu txikienarekin.

EDITORIALA

## DEIA

### Bushen krisia

Ekonomia amerikarra, errezesio edo atzeraldia teknikoki duela urtebete amaitu bazen ere, abiadura hartu ezinean dabil oraindik. Merkataritza Departametuak joan den astean emandako zifrek argi erakusten duela suspertzearen ahula. Bushekin ekonomia zertxobait hazi da, baina ez biztanlego adina. Biztanleko errenta 1988koa baino txikiagoa da eta ezkortsan kutsagarri hori mehatxua da bere hauteskunde kanpainarako. Bushek atzeraldia baino lehen galdu zuen nazioaren norabidea zuzentzeko aukera, presidente berri estatusa izan zunean eta horren alde lan egiteko denbora handik aurrera. Baina ez zuen egin. Bere aurrekoaren ideiekiko errespetuagatik, aldaketa gutxi egitearen alde jokatu zuen eta orain beranduegi da.

Bere gobernatze lanaren ardatz EEBB naziorik boteretsuena egitea bihurtzean, ahaztu egin du oso oinartziko gauza, Amerikaren interesak bertako biztanleentzako direla, eta bere hauteslegoaren zati baten konfidantza galdu egin du. Berriz aukeratu izateko eragozpen handiagoak delarik hau Clintonen jendarterako harrera ona baino. Gure politikoei, sarri Bushen miopia bera jasaten bait dute, ongi oharatu behar lukete zer gertatzen den demokrazian errealtatearekin erlazioa galtzen denean.

EDITORIALA

# GAIA JARRITA

## Istiluak Hego Afrikan

Hego Afrikan zuri ta beltzek badute istilu franko. Europan eta Ameriketean isurtzen da hainbat malko: denek pakea nahi dute baina bere komenentzirako. Gerra ere mundu zabalak saltsarik ez du faltako, herri bakoitzat bere lurrean agintzen ez duelako.

JOKIN SOROZABAL



Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordaiua: SS 800/90

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentes: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: INAKI URIA

Zuzendariordea: LUZHEN ETXEZAHARRETA

Zuzendari Komertziala: JUAN INAZIO HARTSUGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitateak: KORNELIO ROTETA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20160 Lasarte-Oria / nº: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93  
Egoitza soziala, Publizitate eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20010 Donostia / nº: 46 90 22 / Faxa: 45 59 57  
Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / nº: 23 38 72 / Faxa: 23 38 73  
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 51011 Iruñea / nº: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77  
Bizkaita: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / nº: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60  
Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2. Galuperia karia. / 64100 Baiona / nº: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11